

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2022ko azaroak 4 · 1246 zenbakia

JATEKOA EZ GALTZEKO KONTZIENTZIATUZ



Etxeko aseguruak
estimaten duguna
babesten du.
Altzariak,
elektrodomeitikoak,
arropa, balio
handiko gauzak...
Sartu eta azalduko
dizugu!

**ETXE
ASEGURUA**

EUKi
ASEGURUAK

Euki-n zure etxearen
neurriko babes onena
eskaintzen dizugu

INFORMAZIO GEHIAGO: eukiseguros.com



osasun gida

Dentistak

arat.
HORTZ KLINIKAK - CLINICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**



Terriza Etxeberria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 937
www.aratclinika.com

 **IRAZABAL**
clínica dental

**Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Fisioterapeutak

 **ANE MENDIA**
FISIOTERAPIA ZENTRUA

70 Kolapateko
- ENDOSKOPIA
- KIBRE LENBIAK
- Parturien atera TRATAMENUA
- A-osteko + KIBRELENBIAK

Asteakosta, 20
T.F. 943 83 06 42
ane_mendia@hotmail.com

 **EIBAR** + HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iniguez
Odontologian Lizentziatua
943 208

San Agustin Kalea, 4 beheko ezkerrean
20600 Eibar (Diputakoa)
943 537 076 - 688 894 808
info@eibarclinicadental.com

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidobarrrieta, 7-1. esk. 843-702888

Ginekologia

Dra. Laura Martínez  *Dr. Alejandro Recas*

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetriziaz
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaelbar.com

 **Unzaga Plaza**
Hortz Klinika - Clínica Dental

Maite Orozco Ventura

Unzaga Plaza, 5 - 4. ezkerrean Tel. 943 70 23 85

**Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnos: 943 20 72 17

 **GASTESI**
Hortz-Klinika

Erribal, 9 - 1. C
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



Debabarreneko Mankomunitateak eta Eibarko Hezkuntza Esparruak jantokietan elikagaien xahutzea saihesteko proiektua jarri dute martxan. Gaiaren inguruan gehiago jakiteko, Uxue Zabaleta Hezkuntza Esparruko Agenda 2030eko koordinatzailea elkarrizketatu du.

On Ekin ekintzailletza proiektuen lehiaketaren X. edizioa egin da aurten eta urriaren 27an banatu zituzten sariak Errebal Plazan. Nataly Villen izan da aurtengo irabazlea NATALY COACH & CABALLOS proiektuarekin. Bere egitasmoak zaldiekin egiten den terapia emozionala du oinarri eta 2.000 euroko saria jaso du. Publikoaren saria LAOSS BRAND proiektuko Beatriz Mazo eta Lucia Gorostidik eskuratu dute. Bikoteak bitxiak egiten ditu surf-taulen erretxina berrerabiliz.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA

943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

NORMALIZAZIOA

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Astean esanak



Foballa eta erakundeen arteko tentsioa areagotzen doa segurtasuna dela-eta. Oraingoan foballa Estatuaren aurka ipini da, segurtasuna dela-eta. San Mamesen izandako arazoak badirudi Anoetara ere zabaldu daitezkeela. Ertzaintzak, jakina, neurri zorrotzagoak nahi ditu eta hatz-markak hartu nahi dituzte estadioetako ateetan. Poliziak legearen mugak ezartzen ditu bere eguneroko jardunarekin. Realean, bere aldetik, ez dute uste segurtasun arazo larririk dutenik eta ez dute nahi beste batzuek izan ditzaketan arazok eurak zipriztintzea. Ligak zaletuen hatz-markak izatea aurretiaz eta badaezpadako eskubide-murrizketa antza du, legez kanpoko ezer eman ez denean. Egia da, baita ere, ate batzuetan eskatzea eta besteetan ez diskriminazio zentzua ere baduela.

IÑAKI IZQUIERDO, kirol-kazetaria

Maritxu Kajoj ospakizunean gustura ibili gara tabernaz taberna, eta bagenekigun oso gutxi direla, bizpahiru? gaur egun Mondragoeko erdigunean rocka jartzen dituzten tabernak. Parrandakide dudana beste aita batek esan zidan dagoeneko etsi duela bere seme-alabak Cicatriz, RIP, Hertzainak eta enparauak disfruta ditzaten edo zitzaten lantzeari, eta horrek penatzen duela. Baditut beste ezagun batzuk esan ohi dutenak euren seme-alabek ez dutela inoiz reggaetonik entzungo, ez dietela utziko. Ez nago ados, nik ez du halakorik egiteko asmorik. Zertarako galarazi? Akaso ez du belaunaldi bakoitzak horixe egiten, aurrekoarekin apurtu, hain zuzen ere? Debekatuz gero, erantzuna kontrakoa izango da. Euren bidea egin behar dute, ez gurea: gizalegea da.

IKER BARANDIARAN, musika-zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OKOZPEKO INTXAURRA → Zintzurra. Gizakien laringeak izaten duen irtenunea. "Berbetan zanian, gora ta bera ibiltzen jakon okozpeko intxaurrea".

OLGETAN IBILLI. → Txantxetan, bromatan. "Olgetan ebizela, benetara jo eben eta hasarratu ziran betiko".

1971-72

Marrazki lehiaketa Untzagan

Plazaolaren argazkian ikusten den bezala, orain dela urte batzuk antolatzen ziren marrazki lehiaketak benetan arrakastatsuak izaten ziren parte-hartzaile kopuruari begira, Untzaga plaza artista gazteekin bete-beteta ageri baita.



Farmaziak

BARIXAKUA 4
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
ZAPATUA 5
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
DOMEKA 6
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 7
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 8
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 9
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUENA 10
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 11
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Estrella Lopez Lopez**. 87 urte. 2022-10-26.
- **Irene Ansola Gisasola**. 93 urte. 2022-10-28.
- **Lola Eraso Perez**. 89 urte. 2022-10-30.
- **Jose Maria Ibarzabal Mandiola**. 73 urte. 2022-11-01.
- **Maria Luisa Baskaran Gisasola**. 81 urte. 2022-11-01.

Jaiotakoak

- **Paule Etxaluze Ros**. 2022-10-25.
- **Iyer Azpiri Pascual**. 2022-10-26.
- **Leo Azpiazu Arruebo**. 2022-10-27.



Alderdi sozialistak Ego-Gain hobetzeko proposamena dauka, EAJ-PNV alderdiak Matsarian geltoki berria egitea nahiago du eta EH Bilduk herritarren esku laga nahi du erabakia.

Etorkizuneko autobus geltokiarentzat tokirik aproposenaren bila

Josu Mendicute EAJ-PNV-ren udal bozeramaileak urriaren 21ean egin-dako agerraldian azaldu zuenez, “alderdi jeltzaleak proposatutako geltoki intermodala jasoko du ziur aski HAPO berriak, horixe baita adostasun zabalena duen proiektua. Hainbat urtez alderdi politikoaren arteko tirabirak sortu baditu ere, aurten erabateko babesa lortu du Hirigintza Aholku Batzordean”. Batzorde horrek Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzea du helburutzat, eta bertan parte hartzen dute herriko hainbat eragilek, tartean alderdi politiko guztiak.

Hala ere, handik egun gutxira, Egogain inguru osoa berrantolatatzeko eta berrurbanizatzekeo proiektua aurkeztu zuten Jon Irao-

la alkateak eta Ana Telleria udal talde sozialistaren bozeramaileak. Beraien berbetan, “egitasmoak, besteak beste, funtsezko hobekuntzak aurreikusten ditu gaur egungo autobus-geltokirako. Gaurgoizean egindako Hirigintza Batzordean alde zuzenetik azaldu den proiektu honek kontuan hartzen ditu Ego-gaingo etxebizitza-bloke berriaren promoziotik eratorriko den urbanizazioa eta eraikuntzaren osagarri izango diren urbanizazio-obrak”.

Alkatearen berbetan, “gobernu-taldeak autobus-geltokia toki horretan izatearen aldeko apustua egin du beti, eta hala egiten jarraitzen du. Izan ere, beste indargune batzuen artean, hiriaren erdian dago, eta intermodalitatea

Etorkizuneko Eibarko autobus geltokia non kokatu behar den zeresan asko ematen ari da azken aste hauetan. Udalean ordezkatuta dauden alderdi politikoaren artean iritzi kontrajarriak daudela agerian geratu da batzuen eta besteen adierazpenak entzun eta gero.

bermatzen du, beste garraio-konezio batzuetatik gertu dagoelako, hala nola Ardantzako tren-geltokitik eta taxi-geltokitik. Gainera, geltokitik hurbil dagoen merkataritza- eta ostalaritza-jardueraren erakarpenean foku bat da gure herriarentzat, eta horrek sinergiak sortzea ahalbidetzen du”.

Jeltzaleen addierazpenen harira, EH Bilduk “errealitatea eta iritzi publikoa manipulatzeko”. leporatu dio EAJ-PNVri: “Organuko 21 kideetatik, bakarrik 11 kidek hartu zuten parte bilera hartan, horietatik sei ordezkaritza politikokoak eta bost eragile sozialak. Zer zilegitasun du PNVk horrelako ondorioak ateratzeko?”.

Gauzak horrela, autobus geltokiaren kokalekua herritarrek erabakitzea proposatu du Bilduk: “Hiriarentzat eta herritar guztientzat estrategikoa den proiektu honen eztabaida publiko argia eta zentzuduna behar duela uste du EH Bilduk. Eibarren dauden kokaleku posible guztiak aztertu eta kokalekua herritarrek erabakitzea proposatzen dugu”.

AUTUAN

DOMEKAN HASIKO DA PATINAK IPURUAN EKIMENA

Domekan sartuko da in-darrean neguko ordutegia Ipuru kiroldegian, martxoaren 26ra arte. Beraz, kiroldegiko instalazioak domeka eta jai egunetan 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte. Horrekin batera, "Patinak Ipuruan" izeneko jarduera hasiko da: astero, domeka arratsaldean kiroldegian patinatu nahi dutenek horretarako aukera izango dute, 17:45etik 19:45era bitartean.



HERRI BATZARRA ETA HITZALDIA MARTITZENEAN

Azken orduko agenda aldaketa bat tartean dela, Eibarko EH Bilduk aste honetarako antolatuta zituen herri batzarra eta hitzaldia atzeratu egingo dira. Datorren astean, martitzenean 18:00etan hasiko da herri batzarra, Bilgunean, eta, jarraian Oskar Matute Espainiako Kongresuan EH Bilduren diputatua arituko da berbetan.



Nerea Isasi hartuko du Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun zuzendari kargua

Nerea Isasi Bedaio eibartarra izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun zuzendari berria. Hala jakinarazi du Eider Mendoza bozeramaileak aste honetan. Isasik irakasle ikasketetako diplomatura eta Psikopedagogiako lizentziatura dauzka. Hamabost urtez hezkuntza publikoan aritu dalanean, eta azken zazpiak Lanbide Heziketan eman ditu. Berdintasunaren gaiaren inguruan lan handia egin zuen Isasik, eta irakasle izan zen bertan. Ema-

kundeko zuzendari izendatu berri duten Miren Elgarresta ordezkatu du karguan eibartarrak. Mendozak nabarmendu duenez, Berdintasun zuzendari karguaren izendapena "oso garrantzitsua" da: "Europar desberdintasun maila txikiak dituzten lurraldeen artean kokatu nahi dugu Gipuzkoa eta, bide horretan, desberdintasunari aurre egin nahi diogu bere alderdi guztietatik: sozialetik, ekonomikotik, linguistikotik, eta baita genero ikuspegitik ere".

Eibarko 19 odol-emaile omenduko dituzte biharko bazkarian

Eibarko Odol-emaileen eguna ospatuko dute bihar, dominak eta diplomak banatuz (25, 40, 50, 75 donazio egindakoei eta 100eko bati). Untzagako jubiletzeko atarian batuko dira, 13:00ean, eta bazkaria Eskarne jatetxean izango da. Azken urteotan herriz-herriz egiten dira ospakizunak eta Eibarren 19 lagun omenduko dituzte aurretan.





Mikel Lizarralde bere istorioa kontatuko du Zazpi proiektuan

Orain dela ia bost urte esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten Mikel Lizarralde eibartarrari. In-gurukoen eta kirolaren laguntzarekin, hasierako kolpeari buelta ematen hasi zitzaion, 2019an, diagnostikotik urtebetera, Zegama-Aizkorri mendi-maratoia egitera arte. Orain, bere istorioa bideoan eta audioan kontatu nahi du eta, asmo horrekin, Zazpi izeneko proiektua ipini du martxan.

Mila lagunetik batek dauka esklerosi anizkoitza. Gaixotasun neurologikoa, sendaezina, kronikoa eta degeneratiboa da. Beraz, Lizarralde gaitzari buruz publikoan hitz eginda, gaitzaren inguruko ezagutza apur bat gehiago zabaldu nahi du. “Hurrengoan diagnostikatu berria den batek ez dezala izan nik izan nuen beldur eta ezinegon bera, edo pixka bat gutxiago”, dio. 2021ean “Nire erreferenteak” elka-

rrizketa-sortarekin bizitzan kolpe- ren bat jaso duten beste batzuen esperientziak ezagutu eta partekatu zituen Lizarralde, eta orain bere bizipenak kontatuko ditu Zazpi proiektuarekin. Baina, kamera aurrean geldi-geldi egon beharrean, mugimenduan egingo du, Euskal Herrian zehar bidaia bat eginez. Azaldu duenez, proiektuak hiru fase dauzka: kontakizuna, bidaia eta dokumentala, eta lehenarekin, kontakizunarekin hasi berria da. Aurrerapen gisa, proiektua zer den, gaitza nola antzeman zuen aurrena... kontatzen ekin dio proiektuari. Bideoak eta audioak Zazpi.eus webgunean daude ikusgai eta entzungai. Bidaia zein izango den ez du oraingoz kontatuko, baina dokumentala Pello Osoro eta Maite Arroita jauregi Mursego eibartarrekin batera egingo duela aurreratu du.

Gaurko zine-forum saioarekin hasiko da Azaroaren 25eko egitaraua

Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira Eibarren antolatu duten programazioa gaur bertan hasiko da, Pagatxa elkartearen eskutik 18:30ean Portalean hasiko den zine-forum saioarekin: Izaskun Rodríguez Elkorok dinamizatuko du “En tierra de hombres”, Niki Carok zuzendutako filmaren inguruko solasaldia. “Indarkeria matxistaren aurrean, Saretze Feminista” goiburuari jarraituta, azaroan zehar beste hainbat jarduera garatuko dira: datorren asteko barixakuan, 19:00etan, Irantzu Varelak “Villa-na” bakarrizketa eskainiko du Portaleko areto nagusian. Azaroaren 18 eta 19an, berriz, “Autodefentsa Feminista: sakontze tailerra” egingo da Errebalean. Azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean, “Indarkeria Matxisten Aurkako matakak ehuntzen” ekintza hasiko da 11:00etan, Untzagan, eta elkarretaratzea 13:00ean izango da. Egitarauak hilaren 29ra arte jarraituko du.





Azaroaren 14an itxiko da Bizilagunak ekimenerako izen-ematea

Azaroaren 14ra arte eman daiteke izena Bizilagunak ekimenean parte hartzeko, immigrazioa@eibar.eus edo ongietorri@etakitto.eus helbideetara idatzita eta 943 70 84 40 edo 943 20 09 18 telefonoetara deituta. Bestela, soscismogipuzkoa.org webgunean ere ('Bazkariko parte-hartzaileak' atalean) izena emateko formularioak daude. Bazkaria azaroaren 20an egingo da familietako baten etxean.



Nagusientzako Baliabideen Gida kaleratu dute, herriko zerbitzuak bateratuta

Udalak, Adindu Gerontologia Zerbitzuak-en lankidetzarekin, Adinekoentzako Baliabideen Gida presatatu du, herritarren eskura dauden zerbitzu, laguntza eta jarduera guztiei buruzko informazioarekin. Bertan bildu dituzte, besteak beste, herriko talde eta elkarteek antolatzen dituzten jarduerak eta eskaintzen dituzten zerbitzuak, prestakuntza-zentroetakoak, kirol-zerbitzuak, heziketa artistikoa eta soziokulturala, kultura-guneak, gizarte-zerbitzuak, berdintasun-zerbitzuak eta

osasun arloko zerbitzu eta baliabideak. Asmoa informazioa modu bateratuan eta erraz kontsultatzeko moduan eskaintzea da. Gida baka-rik bizi diren 65 urte edo gehiago duten eibartarren etxeetan banatuko dute, buzoietan. Horrez gain, herriko jubilatuen etxeetan eta beste hainbat tokitan ere eskuratu ahal izango da. Informazioa ahalik eta modu errazenean aurkitu ahal izateko, bestalde, edukia atalka sailkatu eta kolore ezberdinekin bereiztu dute.

BERBETAN

EUSKALDUNAK
behar ditugu!!!!

- **MINTZAPRAKTIKA BEHAR DUTENEI** *laguntzeko*
- **ASTEAN BEHIN, ORDUBETE,** *besterik ez*
- **TALDE TXIKIETAN ETA GIRO** *zoragarrian!*

943 200918 - DEITU EDO IDATZI - www.etakitto.eus



Helmholtz Electrónica SA enpresan, besteak beste, telebistak eta Helmholtz organoak egin zituzten. PLAZAOLA (1969)

Zineklubean, Eibarren egindako Helmholtz pantaila zegoen. Tomas Albak musika sesio batzuk aurkeztu zituen Eibarren bizi izan zenean. Nor zen eta Triple A-k nola hil zuen kontatzen du.

Helmholtz pantaila Arrate Kultureko zinean

Felix Arroita Jauregi Altuna
(1940)



Felix Arroita Jauregi Altuna Eibarko Txiriokalean jaio zen 1940. urtean. Hamalau urterekin hasi zen lanean BH lantegian eta gero ALFAra joan zen; han, orduko sindikatu bertikaleko bitartekaria izan zen. TEFISO (Teologia, filosofia eta soziologia) taldean sartu zen gaztetan. Eibarko Juan XXIII kooperatibaren (Eroskiren ernamuinetako bat) sortzaile, Eibarko Arrate Kultur Elkartearen zineforumaren arduradun eta Klub Deportiboko diruzain izandakoa dugu.

Felix Arroita Jauregi grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Genkagun Helmholtz bat, Eibarren egindakua, pantalla haundixakin [Kulturalian]. Eta han egiten genduazen, egiten genduan... batekin akordatzen naiz, “La novena de Beethoven”, emoten zebe, ta zuzendarixa izaten zan, el presentador, uno que le mataron los del GAL. Lehelengo Radio Eibarren zeguan, gero HB-ra pasau zan, HB-n ziñegotzia izan zan, Donostian, eta han hil zebe, GAL-ekuak. GAL-ekuak, edo Batallón Vasco Español edo holakoren bat. Alba, Tomás Alba (...) Helmholtz. Akordatzen naiz harek zuzendu, zuzendu edo behintzat aurkeztu zeban koziortoren bat, sinfoniaren bat, “La novena de Beethoven”.

Eibarko Udalak eta Debegesak martxan jarritako HELDU! programan zortzi ekintzaile ari dira euren enpresak sortzeko lehen pausoak ematen. Helburua da Eibarren enpresa-jarduera berriak sortzea. Ivan Rogel elgoibartarrak Ingurumen Zientzietako ikasketak egin ditu eta bere asmoa plagei aurre egiteko enpresa sortzea da.



IVAN ROGEL • HELDU! programako ekintzailea

“Izurriteei edo plagei aurre egitearekin zerikusia duen negozio-idea lantzen ari naiz”

Ingurumenarekin eta, zehazki, izurrite edo plagekin lotutako proiektua lantzen ari zara HELDU! programan. Nondik dator negozio-idea hori?

Batxilergoa amaitu ondoren Ingurumen Osasuneko goi mailako zikloa egin nuen. Han asko lantzen zen plagen arloa, eta nire kontu ere hainbat ikastaro egin nituen. Ondoren, Ingurumen Zientzien ikasketak egin nituen. HELDU! programaren berri jakin nuenean oso aukera ona iruditu zitzaidan. Aspaldi nuen nire enpresa sortzeko ametsa.

Nola ezagutu zenuen HELDU! programa?


Debegesara jo nuen laguntza eske. Eibarko Udalarekin batera sustatutako programa horren berri eman zidaten. Nire arloa ingurumena denez, eta programan lehentasuna zeukaten gaien artean zegoenez, proiektua aurkeztera animatu nintzen. Zorionez, aukeratuetakoa bat izan zen.

Nola egiten da lan plagen kontra?

Produktu kimikoak erabiltzen dira gehienbat, baina gero eta gehiago bilatzen da beste baliabide batzuekin lan egitea, produktu kimiko horiek alde batera lagaz edo murriztuz. Horretarako beste teknika batzuek daude, eta horietan inbestigatu nahi dugu. Animalien portaerak, lehentasunak eta ohiturak ondo ezagutzeko ezinbestekoa da. Hori da gure lana: jakin nondik eta zergatik etortzen diren, berriro gauza bera ez gertatzeko.

Enpresa sortzeko bide horretan zeintzuk dira zure ustez zailtasun edo oztopo handienak eta zertan laguntzen dute HELDU! bezalako programek?

Zailtasun handienak eragiten dizkidan gaiak baimenak, legedia, fiskalitatea eta antolakuntza dira. HELDU!n tresna guztiak ematen dizkigute gure lana



errazteko. Gaiak orokorrean lantzeaz gain, norbanako-tutoretzak ere egiten dira, ekintzaile eta enpresa bakoitzaren ezaugarri eta beharrei erantzuteko. Jendearengana iristea oso inportantea da eta HELDU!n marketin-plana oso ondo lantzen da. Oso adeitsuak dira gurekin, eta ahal duten guztian laguntzen digute. Gure negozio-ideiak martxan jartzeko babesa ematen digute, presiorik gabe, eta hori oso lasaigarria da. Bidean laguntzeko daude eta hori eskertzekoa da.

“Gure zaldia koadrilan bizi dira, gizakion antzekoak dira zentzu horretan”

NATALY VILLEN • On Ekin 2022 lehiaketaren irabazlea



Ekingune ekintzaileen elkarteak On Ekin sariak banatu zituen aurreko asteko eguenean eta Nataly Villenek eskuratu zuen sari nagusia. Nataly Coach & Caballos da bere proiektua eta zaldiekin egiten den terapia emozionala du oinarri. Publikoaren saria, ostera, Laoss Brand proiektuko Beatriz Mazok eta Lucia Gorostidik eskuratu zuten. Bikoteak bitxiak egiten ditu surf-oholen erretxina berrerabiliz.

On Ekin sarien 10. edizioa izan da aurtengoa eta, berezia izanik, Errebal Plazan egin zuten sari banaketa. On Ekinek aurrera egin dezaketen negozio-ideiak saritzen ditu eta Nataly Villenek pozez hartu zuen lehen saria, pasioz eginiko proiektua jarri baitu martxan Mallabian eta, gainera, 2.000 euro jaso zituen.

Zertan datza Nataly Coach & Caballos proiektua?

Txikitatik ibili naiz zaldiekin eta oso hurbil sentitu ditut beti. Asko lagundu didate bizitza guztian zehar, bai pertsonalki bai emozionalki. Orain dela lau urte krisi pertsonal handia eduki nuen eta, horren ondorioz, hausnarketa egin nuen eta ikusi nuen coaching teknikek asko lagundu ahal zidatela. Normalean jendea psikologoarengana joaten da eta oso komenigarria da hori, baina nik beste bide bat hartu nuen eta niretzat lagungarria izan zitekeen masterra egiten hasi nintzen. Horren bitartez jakin nahi nuen zer ari zitzaidan gertatzen eta hori guztia kudeatzeko erremintak jaso ahal nituela pentsatu nuen. Coachingak zuen potentziala

ikusita eta zaldiekin antzeko prozesuak bizi izan nituela jakinda, arlo biak elkartu ahal zirela ikusi nuen.

Horrelako beste egitasmorik ezagutzen zenuen?

Badaude batzuk, baina ez asko. Ekitazio irakaslea naiz eta ikusi nuen ekitazioaren bitartez, coachingaren begirada edukita, jendeari laguntzeko zenbait gauza egin ahal nituela. Hasieran ez nintzen gauzak neure kabuz bakarrik egiten ausartzen. Beraz, beste batzuekin elkarlanean hasi nintzen ikastaroak, formakuntza-saioak eta horrelakoak antolatzen. Adibidez, neurozientzia, coachinga eta zaldia batzen dituen Amerikako Estatu Batuetako jendearekin ibili naiz elkarlanean.

Nolako zerbitzuak eskaintzen dituzu zehazki?

Alde batetik, ekitazio ekointegratiboa eskaintzen dut. Hau da, ekitazio teknikak irakasteaz gain, zaldiekin lan eginez harremanen arloa eta arlo mentala eta emozionala lantzen ditugu. Horrela, animalia bizi batekin kirola egiten duzu eta, harreman horretan sortzen diren gauzak landuz, zeure burua gehiago ezagutzen duzu, zure gaitasunak gehiago ezagutzen dituzu, zure



mugak... Bestetik, banakako coachinga eskaintzen dut, zaldiekin edo zaldi barik, online edo aurrez aurre. Horren bitartez nahi duzuna landu daiteke. Adibidez, helburu batzuk badituzu eta zerbaitengatik blokeatuta bazaude, edo ez bazara gauzaren bat egitera ausartzen, edo dena delakoa, hori landu egin daiteke. Horrez gain, taldekako coachinga ere egin daiteke. Nire asmoa tailer txikiak eskaintzea da, bai nik proposatutako gaiak lantzeko, eta baita talderen batek landu nahi duen gai jakin baten inguruan lan egiteko.

Mallabian duzue egoitza, ezta?

Bai, bertan dugu baserria. Bikotearen eta bion zaletasuna da eta poliki-poliki zaldientzako tokia egiten hasi ginen (korta batzuk, arezko pista bat, eta abar). Azkenean, zaletasuna ogibide bihurtu da eta familia giroko txoko bat sortu dugu azaldutako guztia eskaintzeko.

Zenbat zaldi dituzue?

Bost. Bakoitzak bere korta du, baina solte bizi dira. Koadrilan bizi dira, bakarrik txarto bizi dira, eta, zentzu horretan, gizakion antza dute. Orduan, zaldiak psikologikoki sano daude. Izan ere, guk nahi duguna

eskaintzeko ez digute balio 24 orduz kortan sartuta dauden zaldiak, ez dutelako guk landu nahi ditugun gauzak lantzeko aukerarik ematen.

Zuretzat zer suposatzen du On Ekin saria jasotzeak?

Ez nuen espero! Azkeneko momentuan eman nuen izena, probatzeagatik. Egia esan, ez bazara ausartzen, ez dakizu zer gertatu daitekeen. Esperientzia polita izan zen. Oso urduri egon nintzen hitzaldia ematen, baina gero negar batean jaso nuen saria.

Zaldiak dira zure pasioa, baina nolako bidea jarraitu behar izan duzu pasio negozio bihurtzeko?

Lehenik eta behin ausartu egin behar zara. Zaldiekin egiten den coachinga nahiko gauza berria da, nahiz eta gero eta gehiago entzuten den, baina zeure buruari galdetzen diozu ea jendeak horrelako zerbait egitea nahi izango duen. Beste eskola batzuetan lanean ibili naizenez eta ezagutzen nautenez, bultzada eman didate eta aurrera egin dut. Gero, zerbitzuak ondo zehaztu behar dira, prezioak nola jarri, negozioa nola ezberdindu... Horrek guztiak hausnarketa egitera behartzen zaitu.



Dotore zilarrezko ezteietan. RAMONBEITIA

Gilda lehiaketa egingo da abenduan

VII. ediziora iritsiko da aurten Gilda Lehiaketa. 2020ko martxoan pandemiak bete-betean harrapatu zuen, ordukoa bertan behera uzteraino. Iaz berreskuratu zen VI. edizioa baina martxoan egin beharrean abenduan egin zen, gabonen aurretik. Aurten ere bide beretik jarraituko du eta abenduaren 13, 14 eta 15ean egingo da. “Iaz igarri genuen jendea gogoz zegoela eta parte-hartze altua izan zuen, bai tabernen aldetik eta baita herritarren aldetik ere. Aurten horrela izango dela espero dugu”, diote ...eta kitto! Euskara Elkartetik. Epaimahaiari dagokionez, “hirukote bikaina izango dugu aurten ere: Mireia Alonsok, Josu Mugerzak eta Ruben Etxani-

zek jardungo dute berriro epaile”. Tabernek azaroaren 15era arteko epea izango dute izena emateko eta, horrekin batera, lehiaketara aurkeztuko duten gildaren argazkia ere bidali beharko dute. Berritasunik ere izango da; izan ere, orain arte epaimahaiak sari bat eta herritarrek beste bat eman izan dute, baina aurten epaimahaiak bi emango ditu, “gilda tradizional onenari eta gilda berritzaileenari. Tabernari batzuk betiko gildaren alde egiten dute, baina beste batzuk, eta hori asko igarri dugu azkeneko urteetan, berritasunaren eta sofistizioaren aldeko apustua egin nahi izaten dute, eta bai bata zein bestea saritu nahiko genituzke”,



epaimahaiak dioenez. Sari bakoitza 150 eurokoa izango da. Herritarren sariari dagokionez, “hor ere 150 euro egongo dira jokoan. Lehiaketara aurkeztuko diren tabernetan bozkatzeko kutxak jarriko ditugu, bezeroek gilda baloratu dezaten, eta bozketan parte hartuko dutenen artean asteburuko egonaldia zozketatuko dugu bi lagunentzat”.



San Andres Bertso Jaialdia egingo da azaroaren 24an

Coliseo antzokian lau bertsolarik jardungo dute Jon Mikel Mujikaren aginduetara: Miren Artetxe, Eñaut Martikorena, Onintza Enbeitia eta Jesus Mari Irazu. Arratsaldeko 18:30ean San Andres bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dira eta horren ostean hasiko da jaialdia. Sarrerek egunean bertan salduko dira 6 eurotan 17:30etik aurrera Coliseoko leihatilan.

Kalean da Txikitto! hilabetekariaren urriko alea

Eibarko LH osoan banatzen den aldizkaria 6 eta 12 urte bitarteko haur guztien eskutan dago joan den asteaz geroztik. Ikasturteko lehenengo aleak makina bat eduki biltzen ditu haur eta gazteen gozamenerako: denborapasak, txistek, liburu-gomendioak, ipuina...

Ikastetxeek eta ...eta kitto! Euskara Elkarateak elkarlanean egiten dute Txikitto! eta urrian hasi eta ekainera arte hilero jasotzen dute astekaria eskolan bertan.



Barixakuak Jolasian Txaltxa Zelain

Urrian hiru auzoetatik pasatu eta gero, Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak Txaltxa Zelaira itzuliko dira berriro gaur. 17:00etatik 18:00etara izango dira jolasak 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat. Azaroaren 11n Torrekuako parkean izango dira eta 18an Urkizukoan.

Ohiturak aldatu janaria alferrik ez galtzeko

Bideoa



Munduan 800 milioi lagun inguruk pasatzen dute gosea. Pandemiak larriagotu duen mundu mailako arazoa da (2020az geroztik 150 milioi lagun gehiagok pasatzen dute gosea) eta konponbidea ez da batere erraza. Baina, maila xumean bada ere, tokian tokiko hainbat erakundek proiektuak jarri dituzte martxan gizartea kontzientziatu eta, ahal den neurrian, arazoa ekiditen laguntzeko.

Hezkuntza zentroetan, lantegietan, egoitzetan... egunero gosaltzen, jaten eta afaltzen ematen duten hainbat jantoki ditugu Debararrean. Ehundaka lagunek erabiltzen dituzte jantokietako zerbitzuak eta, ondorioz, elikagai-kopuru handia behar da erabiltzaileen beharrak asetzeko. Horrelako kopuru handiak kudeatzeko orduan gertatzen den bezala, elikagai batzuk alferrik galtzen dira eta zaborrontzian amaitzen dute. Beraz, arazo horri erantzuna emateko asmoz, Debararreneko Mankomunitateak eta Eibarko Hezkuntza Esparruak jantokietan elikagaien xahutzea saihesteko proiektua jarri dute martxan..

Uxue Zabaleta Eibarko Hezkuntza Esparruko Agenda 2030 Programaren koordinatzaileak kontatu digunez, "hondakin organikoak birziklatzeko elkarlanean genbiltzan Debararreneko Mankomunitatearekin eta janariaren xahuketari



aurre egiteko Europatik dirulaguntzak ematen ari zirela jakin genuen. Orduan, Hezkuntza Esparruan egunero 200 lagun ingururi gosaltzen, bazkaltzen eta afaltzen ematen dien jantokia dugula ikusita, eta askotan pentsatu dugunez zer egin dezakegun sobratzen den janariarekin, proiektu bat martxan jarri behar genuela erabaki genuen”.

Xahuketa murriztu eta janariak elkarbanatu

Euskal Herrian aitzindaria den egitasmoa jarri dute abian Mankomunitateak eta Hezkuntza Esparruak. “Enraiza GKE-arekin harremanetan jarri gara eta azkenengo bi asteetan jantokian alferrik galtzen ditugun elikagaiak neurtzen eta identifikatzen ibili dira. Hau da, zenbat botatzen den eta botatzen dena zer den. Gero, neurri zuzentzaileak jarriko dizkigute eta ikusi beharko dugu ea horiek jarraituta zakarrera botatzen dugun elikagai kopurua murriztea lortzen dugun”, azaldu digu Zabaletak. “Gero, beste kontu bat da, elikagai asko sobratuko balitz, horrekin zer egin. Behintzat, janaria ez botatzeko. Izan ere, janari faltan dagoen jendea egonda, lekuz kanpo ikusten dugu janaria botatzea. Orduan, zer egin aztertu behar dugu”.

Hezkuntza Esparruan martxan jarri den proiektu pilotu horren bitartez Debabarreneko jantoki publiko eta pribatuetan elikagaien xahuketa prebenitzeko oinarriak finkatu nahi dituzte, eskualdean sortutako hondakinen kopurua %10 murrizteko helburua lortzeko urratsak emanez. Gainera, proiektu



200 lagunek gosaltzen, jaten eta afaltzen dute egunero Hezkuntza Esparruan. EKHI BELAR

>>> Eskualdean sortutako hondakinen kopurua %10 murriztea da Debabarreneko Mankomunitatearen helburua

horren bitartez hezkuntza-komunitatea ekonomia zirkularraren eta elikagaien xahuketaren arazoaren inguruan kontzientziatu nahi da.

Diagnostiko fasean

Zabaletak esan bezala, diagnostikoa egiten dihardute Hezkuntza Esparruko sukaldean eta jantokian sortzen diren soberakinak neurtzeko eta kuantifikatzeko. “Oraindik ez ditugu azken emaitzak lortu; baina, esan digutenez, kozinatzeako orduan ez da janari asko alferrik



Debabarreneko Mankomunitateak eta Eibarko Hezkuntza Esparruak jarri dute martxan proiektu pilotua. DEBABARRENEKO MANKOMUNITATEA

galtzen. Batez ere erabiltzaileek erretiluetan hartzen duten janaria botatzen dela ikusi dute. Hau da, adibidez, erabiltzaile batek hiru oilasko zati hartzea eta bi besterik ez jatea, edo lau ogi-koskor hartu eta bi jatea. Platerrean gelditzen den janari hori ezin da berriz banatu”, azaldu digu Zabaletak.

Gauzak horrela, jantokiko erabiltzaileak sentsibilizatu eta kontzientziatu nahi dituzte. “Jateko orduan gose handiz edo antsietatez joaten bazara, proposatzen duguna da lehenengo itzuli baten janari kopuru jakin bat hartzea, neurrian, eta gero, gosez jarraitzen baduzu, berriz altxatu eta janari gehiago hartzea”, diosku Zabaletak. “Neurri zuzentzaileak zeintzuk izan behar-ko liratekeen aztertzen gabilta”.

Hornitzaileak, sukaldariak, erabiltzaileak... elementu ezberdinekin osatzen dute jantoki bateko katea eta guztien arteko elkarlanak bideratuko du janaria alferrik ez galtzeko helburua lortzea. “Lehen, su-

>>> Diagnostiko-fasea pasa ondoren, neurri murriztaileak jarriko dituzte Hezkuntza Esparruan

>>> Hezkuntza Esparruan martxan jarritako proiektu pilotua eskualde osora zabaldu nahi dute gero

kaldariak egiten zuten haragiaren zatitzea eta hor gehiago botatzen zen. Orain, haragia zatituta hel-tzen da”, kontatu digu Hezkuntza Esparruko Agenda 2030 Programaren koordinatzaileak. “Gakoa erabiltzaileengan dago”, bere ustez.

Azterketa egin ondoren, ekintzara pasako dira. “Kartelak jarriko ditugu zenbait mezurekin, e-mail-lez eta sare sozialen bitartez informazioa emango dugu... Gertutik egin nahi dugu lan”, Zabaletaren esanetan. Ikasturte honetarako neurri zuzentzaileak ezarri behar-ko dituzte eta soberakinekin zer egin pentsatu behar-ko dute. Gero, Eibarren egindako lana eskualde osora zabaldu nahi du Mankomunitateak eta, aitzindari izanda, Zabaletak gogotsu ekin dio erronkari. “Legean aldaketak etorriko direla dirudi eta jantokiek euren jarduna moldatu behar-ko dute janaria alferrik ez galtzeko. Beraz, guk lan hori lehenago egiteko aukera izango dugu eta positiboa da”, bere iritziz.



ANER CARDO • Nutrizionista

Gizarte alkoholikoa

Jada ez dugu aitzakiarik behar, badakigu zein izango den “asteburu” honetako plana. Zerbait berezia (edo ez) egonez gero, bazkaria edo afari bat ere egon daiteke. Baina oinarria alkohola edatea da. Osteguna “pintxopote”, ostiralean asteburua hasten da, larunbat eta igandeak “asteburua denez...”. Eta kontuz astelehen batzuekin! Eibarrek jokatzeko badu...

Asteak 7 egun ditu, horietatik 4 alkohola edaten, eta medikuari-alkohola? “noizean behin” edo “asteburuetan bakarrik” edaten dut esaten diozu.

Berdin da zein neurritan, ez dago alkohol kontsumo segururik, izan ere, hainbat gaixotasunekin erlazionatzen da: gaixotasun neurologikoak, gibel zirrosia, minbiziak... Neurotoxikoa da, osasuna kaltetu, deshidratatu eta lesionatzeko arriskua handitzen du. Ez, garagardo edo ardo bat egunean ez da osasungarria. Ez, garagardoak ez du balio kirola egin ondoren hidratatzeko, guztiz kontrakoa egiten du.

Garagardoa edan nahi baduzu, aurrera, baina ez bilatu justifikazio osasungarririk. Osasungarriena alkoholik ez edatea da.

Astea lanean pasa ondoren, buruan dugun plan bakarra lagunekin garagardo batzuk hartzea da. Dirua, osasuna eta denbora alkohola edaten xahutzen dugu. Eta kontuz egun baten ez edatearekin! Begirada arraroak eta “garagardo bat gutxienez edan beharko duzu” bezalako esaldiak jasan beharko dituzu. Lagunekin gelditu eta zerbait hartzekotan beste aukera batzuk egon daitezke: kafea, tea, ura, azukre gabeko freskagarriak, zumo naturalak, 0,0 garagardoak...

Izenburuak gogorra dirudi, baina gaur egungo gizartearen erlazionatzeko modu bakarra alkohola edateko gelditzea dela ematen du, eta nahiko larria iruditzen zait. Horrela ikusten ez duenak, ez du ikusi nahi. Bizitzako helburu bakarra astean zehar lan egin eta asteburuan “anestesiatzeko” bada, ze tristea.

Badakit kulturalki oso barneratuta dugun zerbait dela, eta egoera hobetzea oso zaila dela. Baina lehenengo pausoa konturatzea da, eta hortik aurrera norberak egin beharko du bere lanketa propioa.

"Garagardoa edan nahi baduzu, aurrera, baina ez bilatu justifikazio osasungarririk. Osasungarriena alkoholik ez edatea da"

Aitor Hernandez garaile Legazpiko ziklo-krosean

Azaroaren Iean Legazpin jokatu-tako ziklo-kroseko euskal egutegiko proban, Ermua Innpulso taldeko txirrindulariak bere denboraldiko hirugarren garaipena eskuratu zuen, Burgos aldean aurretik eskuratutako en atzetik. Legazpiko proba oso neurrikoa du Aitor Hernandez ermuarrak, orain arte jokatu-tako 11 edizioetatik zortzitan lehenengoa izan delako helmugaratzen. Bere atzetik sailkatu ziren Asier Arregi eta Francisco Javier Torres, modu horretan podiuma osatzeko.



Beti Eibar Forever aurkeztuko da 9an Armeria Eskolan

Armeria Eskolako areto nagusiak hartuko du hilaren 9an Beti Eibar-Eibar Forever elkartearen aurkezpen ofiziala. Eibar KEren akziodun batzuen ekimenez "mundu osoan sakabanatuta dauden akziodunei ahotsa emateko asmoz" sortutako taldeak uztailean azaldu zuen zeintzuk ziren bere helburuak eta, orain, "gure akziodun guztiak jakitun badira ere, elkartearen kide ez diren akziodunei eta edozein zalegori ere zuzenduta dago eguaztenekoa". Ekitaldia 19:30ean hasiko da eta streaming bidez ere eskainiko da.



Eibar Igerixaneko hogeitazko ordezkari hartu zuten parte Ligaren lehen jardunaldian

Emaitza bikainak eskuratu zituzten gure herriko igerilariek Azpeitiko kiroldegian jokatu-tako jardunaldi horretan, tartean zortzi lehenengo postu, sei bigarren eta lau hirugarren eskuratu-ta. Hogeitazko igerilari horietatik, zazpi federatuak ziren eta beste hamahiruak eskolarte mailakoak eta garaipenak arlo bietan izan zituzten hamalau neska eta sei mutilak. Azpimarratzekoak dira Paula Calvok lortu-tako hiru garaipenak, Julen Canalesek eskuratu-tako biak,

eta Ibrahim Benslaimanek eta Miren Galdosek lortu-tako bakoitzak, erreleboetako 4x200 metroko proba mutilen taldeak bereganatu zuen lasterketarekin batera.

Bestalde, igeriketa sinkronizatu-tan (**goiko argazkia**) lehiatzen dutenen entrenamenduak ere hasi dituzte Eibar Igerixanen. Zapatu-erolozatzen dira, 11:00etan, Orbea kiroldegiko igerilekuan eta interesatu-ek bertara jo dezakete, zalantzak argitu eta izena emateko.

Ioseba Tamayok AEB-etan lehiatu zuen



JAZ Eibar Triatloi Taldeko Ioseba Tamayo elgoibartarrak AEB-etan dagoen S.T. Georgen antolatutako Ironman 70.3 World Championshipen hartu zuen parte aurreko zapatuan. 2021ean Cascaisen lortu-tako laugarren postuak eman zion proba horretan parte hartzeko txartela. Maila handiko proba izanda ere, JAZ taldekoak 86. postua lortu zuen bere mailan, 4:33:39ko denborarekin. 4 gradurekin hasi zuen proba, uretan 17 ziren graduak eta seirekin hasi zen bizikleta gainean.

Gozatzeko zubia izan zuten Deporreko mendizaleek Guaran

Lau eguneko zubia ondo baino hobeto aprobetxatu dute Eibarko Klub Deportiboko eta Elgoibarko Morkaiko elkartekoek elkarrekin antolatutako irteeran parte hartu dutenek. Lehen eguneko ibilaldi zirkularrean 24 kilometro eta erdi (1.450 metro inguruko desnibelarekin) osatu zituzten, 1.940 metroko Peña Canciás eginda tartean. Bigarrenegun, 22 kilometro pasatxo eginda (1.560 metroko desnibela), 1.870 metroko Cabezo de Guara eta 1.920ko Cubilás ere egin zituzten. Hirugarren eguneko bereziki gozatu zuten mendizaleek eta “joan-etorria hiru ordutan aise egin badaiteteke ere, gure bide gehituekin bost ordura joan ginen”, diote. Portal de la Cunarda fenomeno geologikoak harrapatu zituen guztiz, bere harrizko leiho izugarriaren harrotasunaz txundituta; egun horretako desni-



bela 800 metrokoa izan zen. Azken egunean ere izan zen gozatzeko tarterik, Peña Aman (1.117 metro) eta Peña San Miguel (1.124) gainditzeaz aparte. Hor ere izugarritzko harkaitz

tenteak izan zituzten aurrez-aurre, “ostrokak besteko saiak ikusgai”. 13 kilometro eta erdiko ibilbidea osatu zuten azken egun horretan ere, 960 metroko desnibelarekin.

Bihurrik lan bikaina egin zuen “Izar Berriak” torneoaren finalean

Hodei Ezpeleta “Bihurri” Eibarko aizkolariak gero eta sendotasun handiagoa dihardu erakusten modalitate horretako goi mailako kirolariaren

artean dagoela erakutsiz. Oraingoan, Domusantu Egunean Urnietako frontoian jokaturako “Izar Berriak” torneoaren finalean hiru-

garren postuan amaitu zuen, proba nagusia zen lau kanaerdiko mozteko saioan bigarren egin eta gero, Iker Vicente irabazlearen ondoren. Lau finalistek 45 ontzako egurrari egin zioten hasteko, jarraian 65 ontzako enberrari ekiteko. Azkeneko lan luzean, bestalde, Hodeik ezin izan zuen bigarren postua eskuratu. Amaieran Iker Vicente irabazleak 14 minutu eta 18 segundo behar izan zituen lan guztiak egiteko, Basozabalek 24 segundo gehiago, Bihurrik 32 gehiago eta Larrea III-ak minutu eta 19 segundotara amaitu zituen bere lanak. Hilaren amaieran, azaroaren 27an, Bilbon jokaturako den Euskal Federazioko Euskadiko Txapelketa izango du hurrengo erronka Eibarko aizkolariak.



Finaleko lau aizkolariak paretsu ibili ziren azken saiora heldu arte.

Aldaketa sakonak Sostoa abesbatzan domekatik aurrera

Lau urte Sostoa abesbatzaren buruan egin ondoren, Mirengu Plazaolak taldearen zuzendaritza lagako du eta Hibaí Etxebarriak hartuko du bere tokia. Eta ez hori bakarrik, Sostoa Eibarko Udal Musika Eskolan integratuko baita. Plazaola agurtzeko domeka eguerdian abesbatzak kontzertu berezia eskainiko du Coliseoan. Eibarko abesbatzarekin batera Tarragonako Cor Xera abesbatzaren ahotsak entzun ahal izango dira.

Sostoa abesbatza Tarragonan izan zen uztailan Cor Xera abesbatzarekin kontzertua ematen eta, orain, kataluniarrak izango dira gurean, domekan, Coliseo antzokian. Ikuskizuna 12:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da. Esan bezala, saio berezia izango da, Cor Xeraren parte-hartzeagatik eta Mirengu Plazaolaz azken kontzertua izango delako Sostoarekin.

Plazaolak 2018an hartu zuen Sostoa zuzendari kargua eta, pandemia tarteko, lan handia egin du azken urteotan aldaketak eza-gutu dituen abesbatzan. Orain, ostera, agur esateko ordua iritsi zaio. “Pena handiz esaten diot agur, baina lana, familia, abesbatzak... dena ezin kudeatu eta zerbait utzi beharrean ikusi dut neure burua”, bere berbetan.

Plazaolaren ustez “Sostoa talde bikaina da” eta musika egiteko gogotsu daude beti. “Beraz, herritarrek animatzen ditut etapa berri honetan Sostoa ondoan jarrai-

tzeko eta, nola ez, abestera bertaratzeko. Beti esan bezala, abesbatzak edonorentzat ditu ateak zabalik. Animatu zaitezte eta jarraitu musika egiten”, diosku.

Agur esatea ez da erraza izaten, baina Plazaolak berba ederrak besterik ez ditu Sostoa lagunentzat: “Abesbatzari eskerrak eman nahi dizkiot urte hauetan zuzendari gisa egoteko aukera emateagatik, ez zaituztet ahaztuko eta txokotxobat izango duzue nire bihotzean”.

Hibaí Etxebarria zuzendari berria

Hainbat eibartarrentzat ezaguna den Hibaí Etxebarriak hartuko du Plazaolaren tokia Sostoa zuzendaritzan. Etxebarria Eibarko Koro Gaztearekin elkarlanean ibili da azken urteotan eta, musikari bezala bidea egin eta mila saltsatan ibiltzeaz gain, pedagogoa da gernikarra.

Etxebarria Eibarko Musika Eskolako irakasle berria da eta gogotsu hartu du Sostoa abesbatza zuzentzeko ardura. “Sasoi berri honetan



Hibai Etxebarria pianoan Sostoa abesbatzako kideekin. EIBARKO MUSIKA ESKOLA

nire helburu nagusia herritarren parte hartzea bultzatzea izango da. Eibar kantatzen duen herria da. Betidanik egon da kantuarekiko zaletasuna. Abesbatza berria Eibarko gizon eta emakume helduek elkarrekin abesteko sortuko den espazioa izatea gustatuko litzaiguke. Ez da beharrezkoa aurretik musika ezagutzarik izatea. Musikarekiko eta abesteko zaletasuna baino ez dira behar parte hartzeko. Errepertorio herrikoia ikasiko dugu eta, horretarako, moldaketak idatziko ditut partaideek gustuko dituzten abestiak kantatzeko. Kantu zahar eta berriak, errepertorio klasikoak guztiz ahaztu gabe, hor baitago kantu koralararen oinarria. Emanaldien inguruan, abesbatzaren helburu nagusia herrian sortzen diren ekitaldietan parte hartzea izango da”.

Musika Eskolaren hirugarren abesbatza

Sostoa abesbatza Musika Eskolan integratu dute eta, horrela, hiru abesbatza egongo dira eskolan.

“Alde batetik, umeen abesbatza dugu, Juan Bautista Gisasola korua. Bestetik, gazteen abesbatza, Eibarko Koro Gaztea. Eta orain, Sostoaaren integrazioarekin, helduen abesbatza izango dugu hemendik aurrera eta, horrela, adin guztietako abesbatzak izango ditugu. Gogotsu eta ilusio handiz hartu dugu proiektu berri hau eta, domekako kontzertua pasa eta gero, jende berriaren bila hasiko gara”, esan digu Iraide Ansorena Musika Eskolako zuzendariak. Zentzu horretan, abesbatzak martitzenetan eta eguenetan egiten ditu entseguak, 20:15etik 21:45era, Musika Eskolan. “Abestea gustoko duen edonori eta are gehiago abesten ikasi nahi duen edonori ateak ireki nahi dizkiogu, gu ezagutu eta probatzera etortzeko”, diosku zuzendariak.

Ansorenak esan digunez, egitura aldetik ere aldaketak ekartzen ditu Sostoa Musika Eskolan integratzeak. “Hemendik aurrera Musika Eskolatik kudeatuko ditugu

Sostoa abesbatza Musika Eskolan integratuko dute eta, Mirengu Plazaola zuzendariak kargua laga ondoren, Hibai Etxebarriak hartuko du bere tokia

abiesbatzaren ekintza guztiak eta zuzendari artistiko berria musika eskolako irakasle eta langilea izango da. Hau da, udaleko langilea. Gainera, abeslariak musika eskolako erabiltzaileak izango dira, ikasleak. Nolabait abesbatza municipalizatzea lortu dugu eta honek dituen abantailak aprobetxatu nahi ditugu abesbatzari bultzada bat emateko”, bere berbetan.

Abiatu dira Plazara Dantzara saioak

Urriko azken barixakuan hasi dituzte "Plazara Dantzara" dantzaldiak Eibarren, Errebal Plazan egindako saioarekin. Kezka dantza taldeak eta Udaleko Kultura Sailak antolatutako dantzaldi gidatua ikasturte honetan egingo diren Plazara Dantzara dantzaldien lehen izan zen, horrelako gehiago egiteko asmoa daukate eta. Aurreko egunean egindako formatu txikiko saioak antolatzeaz gain, saio bereziagoak ere egingo dituzte. Hurrengo San Andres egunean, azaroaren 30ean izango da.



Aurreko barixakuan egin zen lehen saioa, Errebal Plazan. JON SAEZ

Lotuan, soltean, sokan, jauziak, inguru-
txoak, kontradantzak... denetarik dan-
tzatzeko aukera izan zuten barixakuko
saioa gerturatu zirenek. Pozarren ipini
zituzten oinak airean, Iker Alurrek zuzenean
eskainitako musikaren erritmora eta Patxi
Montero gidari zutela. Kezka dantza talde-
tik adierazi dutenez, "Plazara Dantzara hau
ikasturte honetan egingo ditugun Plazara
Dantzara dantzaldien lehen izan da, Eibar-
ko Udalaren babesean zenbait saio egiteko
asmotan baikara. Hurrengoak San Andres
egunekoak izango dira, azken urteotan egin
izan dugun moduan goiz eta arratsaldekoak".
Egun horretan Miren eta Roberto Etxebarria-
rekin batera arituko dira.

Eibarren hasi eta, pare bat egunera, berriz
abiatu zituzten 2020ko martxoaz geroztik
etenda egon diren Elgetako Espaloia kafe-
antzokiko "Herrixa Dantzan" dantzaldiak,
"jada fundamentuz dantza gaitzkeenez".

Apirilera bitartean antolatuko dira Es-
paloia kafe-antzokiko dantzaldiak, "hilean
behin, normalean hileko azken domekan,
19:00etan, salbuespenak salbu). Orain arte
ohikoa izan denez, aurten ere dantzaldieta-
ko batzuk zuzeneko musikaz izango dira".



Hurrengo Plazara Dantzara saioa azaroaren 30ean, San Andres egunean, egingo da, goizez eta arratsaldez.

Bestalde, maiatzean ez da “Herrixa Dantzan” dantzaldirik izaten, Eibarren Euskal Jaia ospatzen delako azken domekan. Arratsalde dantzaldi handia antolatu ohi da eta, beraz, “haren alde egiteko”. Aurduradunek aurreratu dutenez, azaroaren 27ko saioa berezia izango da. Izan ere, egun horretan ‘Euskal Herriko plazetarako dantza berriak’ proiektua aurkeztuko dute Elgetan, zuzeneko musikak lagunduta: Alboka taldea eta Iker Allur soinu-jolea arituko dira: “Gipuzkoako Dantzaguneak babestutako proiektua izan da, Sortutakoak Tradizionala 8. deialdian. Bezperan ere Dantzan Ikasi programako ikastaroa antolatuko da, proiektu honen nondik-norakoak eta emaitzak aurkeztu, eta proposatutako dantzak probatzeko. Urriaren 30eko saioa azarokoa prestatzeko baliatu dugu. Hala, proiektuko dantza batzuk aurreratu edo prestatu ditugu”.

Erreferentziatzko dantzaldia

Antolatzaileen berbetan “2010etik, Espalioa kafe-antzokiko dantzaldiak erreferentziatzko dantzaldi eta bilgune dira herriko eta inguruko zaleentzat. Inguru osoko zaleak erakartzen ditu Elgetara: Debagoiena, Debarrena, Durangaldea... baita urrutiotatik etorritakoak

Ikasturtean zehar Plazara Dantzara saio gehiago egingo dira eta, horrekin batera, jai egun berezietan egiten direnei ere eutsiko zaie

ere. Dantzaldi honek badu berezitasunik: formatoaren sinpletasuna, musikaren goxoa, tokia bera, eta... ezberdina dela. Tradiziozko dantza eta musikaren oinarrian beti, proposamen propioak plazaratzen ditu, bakarrak, ez-ohikoak. Saio bakoitza ere aurrekoaren ezberdina izan ohi da. Sorkuntza, aniztasuna eta irisgarritasuna parte hartzeko erraztasuna ditu ardatz, dantzan elkarrekin ondo pasatzeko heburuaz”. Izan ere, hori baita dantzaldi hauek antolatzeko arrazoiak: adin eta era guztietako jendeari elkarrekin dantzan aritzeko aukera ematea, horretan ari diren bitartean disfrutatzen.

Dantzaldien inguruko informazioa Internet bidez jarraitu daiteke, www.herrixadantzan.eus helbidean, baita Instagram-en bidez ere ([instagram.com/herrixadantzan/](https://www.instagram.com/herrixadantzan/)).

EUSKARALDIA

HITZES EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra



Ane Lizarralde

EUSKARALDIKO KOORDINATZAILEA EIBARREN

**“Hamabost egun dira eta
erronka polita daukagu
Eibarren euskara ikusarazteko”**

Hitzes ekiteko garaia heldu da. Euskal Herriko txoko guztietan bezala, Eibarren ere euskarari hauspoa emango diogu azaroaren 18tik abenduaren 2ra. Belarriprest edo Ahobizi bezala parte hartu nahi duen orok izena emateko aukera zabalik dauka Euskaraldia hasi arte. Internet bitartez egin daiteke, eta Eibarren bertan hainbat lekutan dago izen-ematea aurrez aurre egiteko aukera.

Informazio gehiago
webgunean:



Zergatik da hain garrantzitsua eibartarrok ere Euskaraldian parte hartzea?

Datuek diotenez euskararen ezagutzan aurrerapauso handia egiten ari gara, baina automatikoki erabilera handitzea ez dakar. Beste hainbat lekutan bezala, Eibarren ere hutsunea kaleko eguneroko erabileran sumatzen dugu eta hor badaukagu eragiteko premia. Euskaraldiaren helburua hizkuntza ohituren aldaketa hori bultzatzea eta eginaraztea da, eta horregatik da hain garrantzitsua herritar guztion parte-hartzea. Hamabost egun dira eta erronka polita daukagu aurretik. Bakoitzak bere aldetik saiakera egin beharko luke euskarari gogor eusteko. Apurka-apurka eguneroko detaile txikiak aldatzen joan beharko ginateke. Beldurrak eta lotsak alde batera laga eta ahalegin hori egitera animatu nahiko nituzke askotan atzean ezkatatuta gelditzen diren Belarriprest horiek. Eurentzako sekulako aurrerapausoa izango da eta ingurukoek pila bat eskertuko diete. Guztion artean Eibarren euskara gehiago entzunarazi eta ikusarazi beharko genuke. Poliki-poliki bada ere, jendea badoa izena ematen. Baina ez utzi azken momentura arte eta animatu, euskarak denon beharra dauka-eta!

Azaroaren 17ra arte eman daiteke izena. Nola egin daiteke?

Horretarako EUSKARALDIA.EUS webgunea dago, baina baten batek online egiteko arazorik baldin badu, aurrez aurre egin dezake Klub Deportiboan, ...eta kitto!-n, AKEBAIren bulegoan, AEKn edo Udal Euskaltegian. Azaroaren 12an Euskaraldiko furgoneta etorriko da Untzagara, 18:00etatik 21:00etara, eta bertan egongo gara txapak banatzen, izen-emateak egiten, leiho eta balkoiatarako banderolak saltzen... Eguraldi txarra eginez gero, Errebal Plazara joango gara. Azaroaren 17an Urkizun jarriko dugu mahaia. 17:00etatik 18:30era.



SUSANA IGLESIAS
Belarriprest

Euskaraldiaren aurreko bi edizioetan parte hartu nuen, eta aurtengoan ere Belarriprest-en txapa jarriko dut soinean. Jendea, txapa ikusten dizunean, zurekin euskaraz hitz egiten hasten da, eta horrela errazagoa da niretzat. Euskaraldia oso esperientzia ona iruditzen zait, gutxiago kostatzen zaidalako hizkuntza aldatzea. Euskara gehiago erabiltzen saiatzen naiz. Adibidez, umeekin, erosketetan... Parte hartze-
ra animatzen zaituztet, oso ona da lotsa kentzeko eta “kutsatu” egiten du!!



MARIFELI ASKASIBAR
Ahobizi

Aurreko edizioan Askasibar kirol-dendan Arigune izan ginen eta aurtengoan ere euskaraz lasai jarduteko gune izango gara. Eta ni Ahobizi izango naiz berriro ere. Gure dendan agurra, behintzat, beti egiten dugu euskaraz, izan Euskaraldia edo ez; kaixo, arratsalde on... Eta, gero, bezeroaren arabera euskaraz jarraitzen dugu edo ez. Baina egia da dendan ikurra ikusten dutenean edo paparrean txapa dugula ohartzen direnean gehiago animatzen direla eta errazago eta gehiago egiten dute euskaraz. Bereizgarriek badute eragin hori. Jendea segituan sartzen da bere rolean eta gustora jarduten duela iruditzen zait.



ANA MERTXE MARTINEZ
Belarriprest

Euskara ulertzeko nahiko ondo moldatzen naiz, baina hitz egiteko ez nabil hain trebe. Horregatik, Belarriprest aukera ona da niretzat. Gaur egun euskaraz berba egiteko hainbat aukera ditugu, euskaltegiak, berbalagun-taldeak... ,baina Euskaraldiak euskara kalera ateratzen du. Txapa jantzita errazagoa da euskaraz egitea, lehenengo berba bai behintzat. Lotsa gainditu eta euskaraz jarduteko aukera ederra da, euskararekin eta euskaraz gozatzeko aukera paregabea.



JON MARDARAS
Ahobizi

Euskaraldiak aukera polita eskaintzen digu gure hizkuntza-komunitatea ezagutzeko eta aukera berriak zabaltzen dizkigu euskaraz berba egiteko. Egun politak izaten dira hizkuntza-ohiturak aldatzen joateko. Espero ez duzun jendea ikusten duzu txaparekin eta aurreiritzi asko apurtzen zaizkizu. Gure herriari dagokionez, erabilera baxua da eta hor dugu erronkarik nagusiena, erabileran. Beraz, iruditzen zait ariketa hau lagungarria izango dela ez hizkuntza-ohiturak aldatzen joateko soilik, baizik eta baita hoiei eusteko ere.

47 lan emango dituzte Eibarko Film Laburren Jaialdian

XXIII. Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdia hartuko du Coliseo antzokiak datorren astean. Plano Corto elkarteak Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatzen duen lehiaketara 200 lan baino gehiago aurkeztu dira eta horietako 47 proiektatuko dituzte astelehenetik barixakura, 20:00etatik 21:30era. Eta sari banaketa ekitaldia zapatuan, azaroaren 12an, egingo dute, hori ere Coliseon. Betiko moduan, sarrera dohainik izango da.



Era guztietako ikus-entzunezko lanekin osatu dute jaialdiko egitaraua, fikzioa eta animazioa tartekatuz. **Astelehenean** hauek emango dituzte: Eva Jakubovskaren “Co lor”, Javier Feserren “Kellys”, Hugo de la Rivaren “Mañana volveré”, Iban del Camporen “Serendipia”, Vanesa Romeroren “Un día de mierda”, Alberto Canoren “Franceska”, Rubén Sánchizen “Lamento”, Xosé Zapata eta Lorenzo Perezen “The monkey” eta Aitor Alberdi Garraldaren “Helmholtz”.

Martitzenean, berriz, beste hauek ikusi ahal izango dira: Virginia Rodríguezzen “7 dosis de dopamina”, Amancay Gaztañaga eta Erika Olaizolaren “Krak”, Alvaro G. Company eta Meka Riberaren “Mesa para 3”, Christopher Sanchez Martinen “El paraguas”, Alex Escuderoren “El crédito”, Pablo Polledriren “Loop”, Iván Sainz Pardoren “Espinass”, Iago de Sotoren “La luz” eta Pedro Rivero eta Kevin Iglesiasen “Los días que nunca fueron”.

Hirugarren egunean beste hauek eskainiko dituzte: Jose Ramon Blasen “Bonjour Douala”, Aitor de Quintanaren “Parlez-vous?”, Sergi Marti Maltasen “Labanyera”, Leire Egañaren “Erlojupekoa”, Jose Antonio Campos Aguilaren “Lentejas”, Carlos Moriana eta Raúl Cerezoren “El semblante”, Carlos Martinen “Quién”, Alex Reyren “Phonorama” eta Alejandra Bueno de Santiagoren “Ezohikoak”.

Eguenean ikusi ahal izango dira Pablo Reigada Ocañaren “Life and butterflies”, Iulen Aranaren “Koadro Goriari heldu”, Oriol Cardús Juveren “El productor”, David Jaramaren “Padlock”, Bruno Simoesen “Kafka’s doll”, Alejandro Lobo Leonen “Amo cada átomo de tu cuerpo”, Lucas Paulino eta Angel Torresen “La inquilina”, Gerald B. Filmoreren “For Pete’s sake”, Miguel Angel Marquesen “Zama” eta Maria Barragan Gutierrezen “Bully”.

Eta barixakuan, berriz, Carlos Baenaren “Tranvía”, Santiago Lascano Santa Cruzzen “Tumba 2”, Oriol Villarren “Cemento y acero”, Alejandro San Martinen “Babel”, Fernando Bonelliren “Ellie”, Alfonso Fulgencio eta Jose Luis Fariassen “Zombie meteor”, Alfredo Andreu Riosen “Negociadora”, David Pérez Sañudoren “Vatios” eta Tania Gonkarren “Resiliente”.



Sostoa Abesbatzak bide berria hasiko du domekako kontzertuaren ostean

Domekan, 12:00etan, Sostoa Abesbatzak kontzertua emango du Coliseon, Tarragonako Cor Xera abesbatzarekin batera (sarrera dohainik). Adierazi dutenez, hau izango da Mirengu Plazaola orain arteko zuzendariarekin eskainiko duten azken emanaldia, “hainbat arrazoirengatik 2018an gurekin hasi zuen ibilbidea bukatuko du eta”. Abesbatzak bihotzez eskertu nahi dio egin duen lana, baita korua berritzeko eta aurrera ateratzeko egin duen ahalegina ere. Sostoaatik azaldu dutenez, zuzendari gabe geratzeak eta pandemiak eragindako kalteak direla eta, abesbatzak “ilusioz” heldu dio Eibarko Musika Eskolan integrazteko ailegatu zaion proposamenari eta, horrela, bide berria hasiko du.



Baserritar modu egokian janzen ikasteko tailerra

Sanandresak gertu daudela eta, Kezka dantza taldeak eta Eibarko Klub Deportiboak buruko zapia, abarke-tak eta gerrikoa janzen ikasteko tailerra antolatu dute azaroaren 18rako, 18:00etan, Portaleko dantza gelan. Azaroaren 15era arte eman daiteke izena, 605 711 429 telefonora WhatsAppa bidalita.

Maila handiko margolanak Aire Zabaleko Pintura Lehiaketan

Domekan egindako XLV. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketan, saridunak Carlos Espiga (Bilbo), Piedad Santa-maría (Leioa), Julio Gómez (Leioa) eta Iokin Telleria (Beasain) izan ziren helduen mailan. Gazteen mailan, berriz, Anne Pascual (Donostia) eta Martina Garate (Eibar) saritu zituzten, eta haurren artean, berriz, Itziar Eiriz eta Mara Esteban eibartarrek irabazi zuten. Epaimahaiak lanen kalitatea nabarmendu zuen.

Indalecio Ojanguren Sariak



Barixakuaz geroztik ikus daitezke Indalecio Ojanguren XXXV. argazki lehiaketan saritutako lanak Portaleko erakusketa aretoan.

Inaugurazioarekin batera, aurtengo irabazleei sariak banatu zizkieten. Erakusketa azaroaren 20ra arte egongo da ikusteko moduan, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

Harpa eta orkestra kontzertua

Pedro Palacin eibartarrak zuzentzen duen Andres de Egiguren Orkestrak Aita Madinaren “Concerto for harp and orchestra” (harpa eta orkestrarako kontzertua) obraren mundu mailako estreinaldia egingo du



bihar, 19:00etan, Coliseo antzokian. Claudia Besnég berrikusi du harpa zatia eta bera arituko da bakarlari gisa. Mozarten “K 550 Sinfoniak” biribilduko du kontzertua. Sarrerak 10 euro balio du.

“Eibar Organoz Blai” erakusketa bigarrenz inauguratuko dute

Armagintzaren Museoko “Eibar Organoz Blai!” erakusketaren inaugurazio berria egingo dute astelehenan, 19:00etan Portaleko areto nagusian. Bertan aurkeztuko dituzte Yanire Sagredok egindako bideoa eta Natalie Hickeyk, Leire Kareagak eta Iratxe Unanuek zuzendutako Zeramika eta Margo Udal Eskoletako ikasleen sorkuntza lanak.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	2			3	4		
				2			
	5	1	6	4			8
8	6			7		2	
	9						7
		2		6			1 9
7				9 8	5	4	
				1			
		8	2				6

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8


soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	9		3	8		1	2
				6		7	4
						5	
	3	6			2	9	
9							1
		2	6			3	4
		1					
3	2			4			
5	7		2	6			8

soluzioa



**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

			2			4	
				5	3		8
	7	3			9		
		6		4	2	9	
9		5	1		6	7	2
		4	7	9		1	
			9			8	7
	6		3	8			
		9			7		

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		8	3					
				7		5	4	
7	4	5			2		3	
	1	6		2	3	4		
		3	4	6		9	5	
	3		7			2	8	4
	2	7		8				
						4	7	

soluzioa

Azaroak 4/10

BARIXAKUA 4

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:30 2-8 urte bitarteko haurrentzat. Txaltxa-Zelaiko parkea.

HITZALDIA

18:00 "Elkarte gastronomikoen papera Eibarko Industrian", Igor Etxabe EHU-ko irakaslearen eskutik. Sarrera doan. Legarre Gain elkarte gastronomikoa.

ZINE-FORUMA

18:30 "En tierra de hombres" (Niki Caro). Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro. Doan. Portalea.


ELKARRETARATZE SOLIDARIOA

18:30 "Sindikalismoa egitea ez da delitua". Untzaga..

ZAPATUA 5

IRTEERA

10:00 Santa Kurutzen txori-kabiak ipintzera joateko irteera, Eibarko Baso Biziak taldearekin. Urkizuko iturria.



MAGOSTO

18:30 Festa Do Magosto, As Burgas Galiziako Etxearen eskutik. Urkizu.

MUSIKA

19:00 Andres de Egiguren Orkestra. "Concerto for harp and orchestra" (Francisco de Madina Igarzabal) eta "Sinfonía K 550" (W.A. Mozart). Zuzendaria: Pedro Palacín. Harpa bakarlaría: Claudia Besné. Coliseo.



DOMEKA 6

MUSIKA

12:00 Sostoa Abesbatza eta Cor Xera (Tarragona). Doan. Coliseo.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinatzera joateko aukera. Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 7

IKASTAROA

10:00/12:00 Filosofia ikastaroa, Marisa Iglesiasen eskutik. Untzagako jubilatuta etxea.

INAUGURAZIOA

19:00 "Eibar Organoz Blai!" erakusketa, Yanire Sagredoren bideoarekin eta Natalie Hickey, Leire Kareagak eta Iratxe Unanuek zuzendutako Zeramika eta Margo Udal Eskoletako ikasleen sorkuntza lanekin. Portalea (areto nagusia).

FILM LABURRAK

20:00/21:30 XXIII. Eibarko Film Laburren Jaialdia. Coliseo.



MARTITZENA 8

BERRIKETAN IKASI

10:30/12:00 "Suizidioaz naturaltasunez hitz egitea, eta ez tabu gisa". SD Eibar Fundazioaren gela.

HERRI BATZARRA

18:00 EH Bilduren herri batzarra eta Oskar Matuteren hitzaldia. Bilgunea.

FILM LABURRAK

20:00/21:30 XXIII. Eibarko Film Laburren Jaialdia. Coliseo.

EGUAZTENA 9

ENERGIA ARGITU

18:00 "Energia berriztagarriak zure etxebizitzan... posible da!". Portalea (ikastaro gela).

FILM LABURRAK

20:00/21:30 XXIII. Eibarko Film Laburren Jaialdia. Coliseo.

EGUENA 10

HITZALDIA

10:00/12:00 "Gure basoak atzo, gaur eta bihar", Mikel Jauregi Eibarko Baso Biziak plataformako kidearen eskutik. Euskaraz. Armeria Eskola.

ODOL-EMATEA

16:30/20:30 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

FILM LABURRAK

20:00/21:30 XXIII. Eibarko Film Laburren Jaialdia. Coliseo.

FRAKUSKETAK

Azaroaren 20ra arte:

- "INDALEZIO OJANGUREN XXXV. argazki lehiaketa". (Portalea).
- AIMU MAESOren "Azulejos". (Portalea).

Abenduaren 11ra arte:

- "EIBAR ORGANOZ BLAI". (Eibarko Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

KONTZERTUA

5ean (zapateria) / 20:00
Lobiano kultur gunea
Rollin' Black Dice
(blues & Rock).



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **5ean:** 22:30
- **6an:** 20:00

“Un año, una noche”

Zuzendaria: Isaki Lacuesta



1 ARETOA

- **5ean:** 17:00, 19:45
- **6an:** 17:00, 20:00 (Antzokia)
- **7an:** 20:30

“Argentina, 1985”

Zuzendaria: Santiago Mitre



2 ARETOA

- **5ean:** 19:45, 22:30
- **6an:** 20:00
- **7an:** 20:30

“La forja de un campeón”

Zuzendaria: Daniel Graham



2 ARETOA

- **5ean:** 17:00
- **6an:** 17:00

“Shin Chan y el misterio...”

Zuzendaria: Wataru Takahashi





Maria Luisa Garate Altuna

8. URTEURRENA
2014/11/06

“Ez ditugu inoiz
ahaztuko izan dituzun
ilusioa eta bizipoza”

- ETXEOAK -

Bere aldeko URTEURREN MEZA
ospatuko dugu azaroaren 6an,
12:00etan, San Andres parrokian





Jose Maria Larreategi “Txopen”

4. URTEURRENA
2018/11/03

“Zure maitasun
eta irriparrarekin
gelditzen gara.
Beti gogoan
izango zaitugu”

- Marilo, Alex, Sonia,
Naroa, Maddi eta Jara -



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MARKEL**, bixar 3 urte beteko dozuz-eta. Egun zoragarria pasau! Musu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **IZARTxo!** Gaur 4 super urte betetzen dozuz. Segi irribarre eder horrekin. Maite zaituen aitta, ama eta Mayaren partez.



Zorionak, **JON**, bixar zure lehen urtetxua egingo dozu-eta. Maider zure arrebaren eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **EKHI**, hillaren 1ian 4 urte bete zenduaz-eta!! Famelixako danon partez.



Zorionak, **MARKEL!** Domekan 2 urtetxo beteko dozuz-eta. Musu pillua famelixaren eta, batez be, Julen eta Danelen partez.

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

tartak
enkarguak etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

FUNEUSKADI
Grupo Antea

FUNERARIA MUGICA
Funerakad

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Kaxilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ernuako bulegoa: Marquis de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan. Erreferentziak. 667060292.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita aste-buruetan eta ospitalean ere. 631612442.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 642577823.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 641739472.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita ospitalean ere. Erreferentziak. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 653236030.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 642782903
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 747447360.
- Gizonezkoa eskaintzen da pegorak garbitzeko, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. 643575070.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko, nagusiak zaintzeko eta tabernan laguntzeko. 622023451.
- Mutil euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 688723822.

- Gizonezkoa eskaintzen da pegorak garbitzeko, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. 643575039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko: garbitu, lagundu eta errekauek egiteko. 685185462.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 674828085.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarak egiteko. Orduka. 695368959.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 658398474.

4.2. Langile bila

- Harakina behar da Soraluzen, haragia zatikatzen, haragi-produktu deribatuek egiten eta bezeroaren arretan esperientzia duena. Bidali curriculum: Whatsapp bidez, 641215470, edo telefonoz deitu, 943 75 12 49.
- Idazkaria behar da aholkularitza batean. Orduka lan egiteko. 622183411. luengo41@gmail.com
- Odontologoa behar da klinika batean, lehenbailehen hasteko. Bidali curriculum: hortz-klinika.06@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Magisteritza tituluduna eskaintzen da 1. Hezkuntzatik aurrerako klaseak emateko. 688746368.

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Sofa salgai, camel kolorekoa. Berria dago. 1'78x0'82x0'95. Kulunkaulki (mezedora) vintage musutruk. 150 euro. 617224139.
- Mepamsa AEG salgai. 60x50. 30 euro. 652 72 25 38.
- Termo elektrikoa salgai. 652 72 25 38.
- Ponyak saltzen dira. 679824081.
- Bateria elektronikoa salgai. Millenium MPS-400. 658748823.



osasun gida

Okulistak

 **Recalde**
 Clínica Oftalmológica
 Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

R.P.S. 20473

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

 **ELENA AIZPUN**
PODOLOGOA

838200124
 kolegiatu zembekia

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

 **IRIGO UNANUE ARTECHE**
www.irigoartehes.com

- Merkataritza Taldeetako Abokuluak Sistemikoak
- Gestalt Terapeuta / Coach Ontologikoak
- Bolakio Orientatzaileak

Urkizu Pasealekoa, 7
 672 682 133
info@irigoartehes.com

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**
 OQUEZ ETIA ARRATZALDEZ
 Urkizu, 13 - beheak
 Tel. 943205823 / 686859023

 **BIDEBARRIETA, 48**
EIBAR
 943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
 943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (122 Kolegiatu zbkia.)
 Rosarito Rodríguez (125 Kolegiatu zbkia.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
 Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

 **PODOLOGOA**

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
 Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



943-206776



ARRAZOIA
N° 83



**Jasangarriagoak eta
aktiboagoak izan
behar gara**



Beti daude zure ilusioekin jarraitzeko arrazoiak

Etxebizitzak Errebal Plazaren ondoan

Gimnasioa | Gourmet Aretoa | Garaje eta Trastelekua

900 11 00 22 • neinorhomes.com

GILDA 2022 LEHIAKETA

Abenduak 13 - 14 - 15

Izena emateko eta argazkia bidaltzeko
azken eguna: **AZAROAK 15**

 (605 71 14 22)  (komunikabideak@etakitto.eus)

SARIAK 

- Tradizionala (150€)
- Berritzailea (150€)
- Herritarrena (150€)

**Euskeraz
primeran!**



EPAIMAHAIA:
*Mireia Alonso,
Ruben Etxaniz
eta Josu Mugerza*